



ARGIBIDE OROKORRAK ETA BALIOESPENA

1. Proban bi aukera (A eta B) emango dira eta horietatik bat hautatu beharko duzu.
2. Soilik hautatu duzun (A ala B) aukerako galderei erantzun. Behin aukera bat hautaturik, soilik balioetsiko dira aukera horretatik erantzundako galderak.
3. Atal bakoitzean adierazten da gehienez lor daitekeen puntuazioa.

A AUKERA

A) PROBA TEORIKOA

Erantzunetatik bat bakarrik da zuzena. Erantzun zuzena: 0,30. Erantzun okerra: - 0,10. Erantzunik gabe: ez da kontuan hartzen. Puntuazioa gehienez: 6 puntu. Puntuazioa gutxienez: 0 puntu.

1. Finantza azpistema:

- a) Bi azpisisistematan banatzen da: produkzioa eta marketina.
- b) Lau azpisisistemak osatzen dute: plangintza, antolamendua, zuzendaritza eta kontrola.
- c) Bi azpisisistemak osatzen dute: finantzaketa eta inbertsioa.

2. Sozietate kolektiboan, industria bazkideek:

- a) Kapitala eta lana jartzen dute.
- b) Lana baizik ez dute jartzen.
- c) Kapitala baizik ez dute jartzen.

3. Enpresa bat bere buruaren bezero izatera pasatzen denean, honetaz hitz egiten da:

- a) Atzeranzko integrazioa.
- b) Aurreranzko integrazioa.
- c) Azpikontratazioa.

4. Betiere plangintza komun batekin eta jabetza berarekin bat etorritz, hainbat herrialdetan eta arlo ezberdinetan aritzen diren enpresa multinazionalak, honela daudela esaten da:

- a) Horizontalki integratuak.
- b) Bertikalki integratuak.
- c) Dibertsifikatuak.

5. Bezeroak kontuak honakoa adierazten du:

- a) Ondasunak.
- b) Eskubideak.
- c) Obligazioak.

6. Egun dagoeneko ez daude ondoko hauek betetzeko era xedatzen duten lege-arauak:

- a) Eguneroko liburua.
- b) Liburu nagusia.
- c) Inbentario liburua eta urteko kontuak.



7. Finantza errentagarritasuna honela defini daiteke:

- Egindako inbertsio osoaren gaineko zer ehuneko egiten duen mozkinak, interesak eta zergak baino lehen.
- Enpresaren funts berekien gaineko zer ehuneko egiten duen Mozkin Garbiak edo Zergen Ondoren lorturiko Mozkinak.
- Akziodunek lortutako mozkinak (dibidendoak) enpresari eman dizkioten kapitalekin.

8. Errentagarritasun ekonomikoak edo aktiboen errentagarritasunak, honakoa erlazionatzen du:

- Lortutako mozkinak enpresak egin duen inbertsio osoarekin, hau da, aktibo osoarekin.
- Lortutako mozkinak enpresaren funts berekiekin.
- Akziodunek lortutako mozkinak (dibidendoak) enpresari eman dizkioten kapitalekin.

9. Eman ezazu erantzun zuzena:

- Salmenten gaineko marjinak aktiboan inbertitu den moneta-unitate bakoitzeko zenbat moneta-unitate saldu diren adierazten du.
- Aktiboaren errotazioak saldutako 100 moneta-unitateko lortzen den mozkin adierazten du.
- Finantza-errentagarritasuna definitzen da enpresaren funts berekien gaineko zer ehuneko egiten duen Mozkin Garbiak edo Zergen Ondoren lorturiko Mozkinak.

10. Aldi jakin bateko inbertsioak sorturiko ordainketen eta aldi horretan bertan inbertsio horrek behar dituen ordainketen arteko desberdintasunari, honela deitzen zaio:

- Kapitalizazioa.
- Eguneratzea.
- Cash flow.

11. Eman ezazu erantzun zuzena:

- Obligazioaren errendimendua enpresak lortzen dituen emaitzen araberakoa da.
- Akzioaren arriskua obligazioarena baino txikiagoa da.
- Akzioek eskubidea ematen dute sozietatearen kudeaketan parte hartzeko.

12. Ondasunen baliogalera ekonomikoa edo zaharkitzea ondoko arrazoi honengatik gertatzen da:

- Denbora pasatu da, besterik gabe.
- Ondasuna gutxi-asko erabili da.
- Ibilgetuaren ondasunen baliogalera, ondasun hauek zaharkitu dituzten teknologia berriak agertu direlako.

13. Malgutasuna fabrikazio-prozesuaren helburu gisa:

- Produktu berriak garatzeko gaitasuna eta burutzeko azkartasuna da.
- Produktu baten prezioa aldatzean, ordutik eskatutako kopuruak izaten duen aldakuntza da.
- Inputak aldatzean outputek izaten duten aldakuntza da.

14. Produkzio maila aldatzen denean kostu osoan ematen den gehikuntzari, honela deitzen zaio:

- Kostu marjinala.
- Batez besteko kostu aldakorra.
- Batez besteko kostu osoa.

15. Ondokoen artetik esan zein aldagai EZIN den kontrolatu:

- Produktua.
- Prezioa.
- Merkatua.

16. Seinalatu informazio okerra:

- Erraz alda ezin daitekeen tresna da prezioa.
- Prezioa tresna oso lehiakorra da.
- Prezioak ez du eragin psikologikorik kontsumitzaileengan.



17. Enpresa baten plangintza funtzioaren barruan, politikak hauexek dira:

- Jarduera zehatz bat egiterakoan bata bestearen atzetik jarraitu beharreko urrats multzoa; jarduerarako jarraibide zehatzak dira.
- Zuzendaritzak hartzen dituen erabakiak bideratzen dituzten enuntziatu orokorrak dira, hau da, beren pentsamendua eta ekimenak bideratzen dituzten ildo orokorrak.
- Planarekin lortu nahi diren azken emaitzak dira.

18. Nola deitzen zaio lan bat egin baino lehen, eginbehar guzti-guztiak eta beroriek zer hurrenkeratan egin behar diren artaz zehaztean datzan koordinazio-mekanismoari?

- Urratsen normalizazioa.
- Emaitzen normalizazioa.
- Trebetasunen normalizazioa.

19. Ondoko autoreen artean, zeinek lotuko zenuke beharren hierarkiaren teoria?:

- Maslow.
- Herzberg.
- McGregor.

20. Produktu baten harrerarekin, biltegitratzearekin, eta bera fabrikatzeko beharrezkoak diren kontsumoen kontrolarekin zerikusia duten jarduerak, ondoko esparru honi dagozkio:

- Barne logistika.
- Kanpo logistika.
- Marketina.

B) PROBA PRAKTIKOA

LEHEN ARIKETA. (GEHIENEZ ERE: PUNTU 1)

MAYER farmazia-enpresak hainbat botika garatzeko proiektuak ditu. Botika bakoitzean beharrezkoak diren inbertsio-kostuak eta espero diren kutzako emari garbiak ondoko hauek dira:

INBERTSIO-PROIEKTUA	INBERTSIOAREN ZENBATEKOA	1. URTEA	2. URTEA	3. URTEA	4. URTEA
Super-Bitamina	92.000	35.000	20.000	46.000	18.000
Retoviral Low-cost	39.000	14.000	14.000	14.000	14.000
Bisolgrap	44.000	19.000	15.250	7.700	17.000
Clamoxol	55.000	13.000	12.000	25.000	17.000
Febrecual	34.000	32.000	-13.000	13.000	24.000

Kapitalaren kostua % 9koa bada, **ordenatu** inbertsio proiektuak Balio eguneratu garbiaren metodoaren arabera eta **adierazi** zein proiektu burutuko diren enpresak 120.000 € baditu inbertitzeko. Demostratu.

Oharra: Bi hamarrenekin biribildu zifrak.



BIGARREN ARIKETA. (GEHIENEZ ERE: 3 PUNTU)

Ondoko hau da MAYER S.A. farmazia-enpresak 2006. urtearen amaieran aurkeztu dituen bere ondareko elementuen saldoak:

• Epe laburrerako ibilgetuaren hornitzaileak	1.264
• Kutxa	1.451
• Epe luzerako zorrak kreditu-entitateekin	12.870
• Bezeroa, kobratu beharreko merkataritzako efektuak	5.000
• Ogasun Publiko hartzekoduna kontzeptu fiskalengatik	880
• Garraio-elementuak	12.600
• Hartzekodunak zerbitzuak emateagatik	455
• Eraikuntzak	31.132
• Galerak eta irabaziak (1)	¿ ?
• Gizarte Segurantzako erakunde hartzekodunak	1.242
• Informatika-aplikazioak	6.927
• Epe luzerako ibilgetuaren hornitzaileak	5.870
• Zordunak	601
• Kapital soziala	50.000
• Hornitzaileak, ordaindu beharreko merkataritzako efektuak	3.064
• Makineria	¿ ?
• Lege-erreserba	4.772
• Hornitzaileak	777
• Bankuko k/k.	6.093
• Epe laburrerako kredituak	720
• Salgaiak	14.278
• Altzariak	1.843
• Epe laburrerako kredituak ibilgetua besterentzeagatik	624
• Epe laburrerako zorrak kreditu-entitateekin	2.008

Ustiapen-sarrerak 37.063 eurokoak izan ziren, eta ustiapen-gastuak 24.420 eurokoak.

Ekitaldi ekonomiko honetarako, finantza-gastuak kalkulatzeko dira jakinik zorraren batez besteko interes-tasa %10 izan dela.

Irabaziaren gaineko Zergaren ezarpen-tasa % 35 da.

(1) Galerak eta Irabaziak lortzeko egin diren kalkuluak idatz itzazu.

HAU ESKATZEN DA:

A) Egoera balantzea idaztea, ondare masen arabera sailkatua: Aktiboa likidezia handienetik txikienera eta pasiboa galdagarritasun handienetik txikienera. (1,75 puntu)

B) Enpresaren finantza-egoera analizatu erabilitako ratioak adieraziz, eta arrazoitu erantzuna lorturiko emaitzak interpretatuz (1,25 puntu).

OHARRA: Bi hamarrenekin biribildu zifrak.



A) PROBA TEORIKOA.

Erantzunetik bat bakarrik da zuzena. Erantzun zuzena: 0,30. Erantzun okerra: - 0,10. Erantzunik gabe: ez da kontuan hartzen. Puntuazioa gehienez: 6 puntu. Puntuazioa gutxienez: 0 puntu.

1. Zuzendaritza-azpisistemaren barnean, zuzendaritza-funtzioa honakoan datza:
 - a) Enpresak bete nahi dituen helburuak definitzea eta helburu horiek lortzeko behar diren plangintzak egitea.
 - b) Pertsona bakoitzak bere eginkizunak bete ditzan lortzea.
 - c) Erdietsitako emaitzak ezarritako helburuekin alderatzea.

2. Sozietate komanditarioan bi bazkide-mota daude:
 - a) Kolektiboak eta komanditarioak.
 - b) Industria-bazkideak eta bazkide komanditarioak.
 - c) Industria-bazkideak eta bazkide kolektiboak.

3. Bi enpresa edo enpresa gehiago desagertzen direnean pertsona juridiko diren aldetik, eta enpresa berri bat sortzen denean, zeinari bere ondarea ekartzen baitiote, kasu honen aurrean gaude:
 - a) Absorzio bidezko fusioa.
 - b) Partaidetza.
 - c) Fusio hutsa.

4. Hainbat herrialdetan lantegiak dituzten enpresa multinazionalak, aldi berean beren jabetzako beste lantegi edo denda batzuetarako bitarteko produktuak ekoizten dituztenak, honela daudela esan ohi da:
 - a) Horizontalki integratuak.
 - b) Bertikalki integratuak.
 - c) Dibertsifikatuak.

5. *Epe laburrerako kredituak* kontuak honakoa adierazten du:
 - a) Ondasunak.
 - b) Eskubideak
 - c) Obligazioak.

6. Pasibo zirkulatuak honakoez osaturik dago:
 - a) Jabeek edo bazkideek enpresari emandako kapitala eta enpresak irabazitako eta banatu gabeko mozkinak sorturiko erreserbak.
 - b) Enpresak aurre egin behar dion urtebete baino epemuga luzeagoa duten ordainketa-obligazioak.
 - c) Enpresak aurre egin behar dion urtebeteko edo epemuga laburragoa duten ordainketa-obligazioak.

7. Enpresak erabilgarriaren eta bihurtgarriaren ondare-elementuekin nahikoa likidezia sortu, eta epe laburrerako zorrak ordaintzeko duen gaitasuna analizatzen da ondoko ratio honen bidez:
 - a) Kaudimena.
 - b) Altxortegia edo likidezia.
 - c) Berehalako erabilgarritasuna.

8. Honako hauek lotzen ditu akziodunaren errentagarritasunak:
 - a) Lortutako mozkinak enpresak egin duen inbertsio osoarekin, hau da, aktibo osoarekin.
 - b) Lortutako mozkinak enpresaren funts berekiekin.
 - c) Akziodunek lortutako mozkinak (dibidendoak) enpresari eman dizkieten kapitalekin.

9. Inbertsioak ebaluatzeko eta hautatzeko irizpiderik perfektuena, eta beraz, proiektuak hautatzeko erabakia hartzerakoan, gainerako irizpideen gainetik gailentzen dena, honela deitzen da:
 - a) Errekuperazio epe edo PAY-BACK.
 - b) Errekuperazio epe Eguneratua edo "PAY-BACK GAURKOTUA".
 - c) Balio Eguneratu Garbia (BEG).



10. Iraupen-aldiaren arabera, bi inbertsio mota bereizten dira:

- a) Epe laburrekoa eta epe luzekoa.
- b) Finantzarioak eta produktiboak.
- c) Ordezpenekoa kostuak murrizteko eta dauden merkatuen hedapenekoa.

11. Ondasun baten balio galera fisikoa ondoko arrazoi hauengatik gertatzen da:

- a) Denbora pasatu da, besterik gabe.
- b) Ondasuna gutxi-asko erabili da.
- c) Teknologia berriak agertzea.

12. Just in Time sistemaren ezaugarria da ondoko produktu hauek fabrikatzea:

- a) Produktu-bariedade zabal baten lote txikiak.
- b) Produktu-bariedade txiki baten lote handiak.
- c) Produktu bakar bat.

13. Produkzio-prozesuen sailkapena, lanak egiten dituenaren arabera:

- a) Malguak, lerroan edo masan eta loteka.
- b) Eskuzkoak, mekanikoak eta automatikoak.
- c) Lantegika, artisau-produkzioa eta loteka.

14. Ale bat gehiago produzitzen bada, gertatzen den kostu-gehikuntzari deitzen zaio:

- a) Kostu marjinala.
- b) Batez besteko kostu aldakorra.
- c) Batez besteko kostu osoa.

15. Ondokoen artetik esan zein aldagai kontrolatzen ahal den:

- a) Banaketa.
- b) Lehia.
- c) Ingurunea.

16. Mozkin edo salmenta-kopuru jakin bat lortzeko bidea emango duen prezioa finkatzen duen metodoari deitzen zaio:

- a) Kostu gehi marjinaren metodoa.
- b) Prezio objektiboaren metodoa.
- c) Lehia-metodoa.

17. Enpresa batean, zehaztasun maila txikiarekin, enpresa osoari eragiten dioten planak egitean datzan plangintzari, honela deitzen zaio:

- a) Plangintza estrategikoa.
- b) Plangintza taktikoa.
- c) Plangintza operazionala.

18. Ondoko autoreen artetik, zeinekin lotuko zenuke Giza-harremanen eskola?:

- a) Frederick Taylor.
- b) Henri Fayol.
- c) Elton Mayo.

19. Zein autorek uste du helburuari ematen zaion garrantziak eta erdiesteko dagoen itzaropenak baldintzatzen dutela pertsona batek helburu bat erdiesteko daukan motibazioa?:

- a) Maslow.
- b) Herzberg.
- c) Vroom.

20. Balio-katean, zein jardueraren barnean jarriko zenuke biltegiatzea?

- a) Barne logistika.
- b) Kanpo logistika.
- c) Marketina.



B) PROBA PRAKTIKOA

LEHEN ARIKETA. (GEHIENEZ ERE: PUNTU 1)

EKOSASUNA enpresak sagar-zuku ekologikoak produzitzen ditu, eta ondoko kostu hauek ditu:

- Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk..... 90.000 €
- Produkzioan erabilitako sagar ekologikoak. 70.000 €
- Makineria 30.000 €
- Zukuak sartzeko tetra-brik ontziak 10.000 €

HAU ESKATZEN DA:

- A. Zuku bakoitzaren salmenta-prezioa, errentagarritasun-atalasea 100.000 zukutan badago.
- B. Enpresaren emaitza 85.000 zuku produzitu eta saldu badira aurretik kalkulaturako prezioan.
- C. Irudikatu grafikoki errentagarritasun-atalasea, galeraren eremua eta irabazien eremua seinalatuz.

BIGARREN ARIKETA. (GEHIENEZ ERE: 3 PUNTU)

Aimar Zubeldia bizikletak fabrikatzen dituen banakako enpresaburua da. 2006ko abenduaren 31n, ondoko elementu hauek aurkeztu zituen:

- Gurpilak, koadroak, martxa-aldagailuak, kateak, platerak, etab.
- Letren bidez ordaintzeko zorra du gurpilengatik, koadroengatik, martxa-aldagailuengatik, platerengatik etab.
- Lantegia dagoen lursaila.
- 6 urteko zorra du, lehen esandako lursaila dela-eta.
- Bizikletak muntatzeko makinak.
- 11 hilabeterako zorra du aurreko atalarengatik.
- Zorra du makinaren konponketarengatik.
- Letren bidez ordaintzeko zorra dute berarekin bizikleten salmentarengatik.
- Negozioa abian jartzeko ekarpena.
- Enpresaren kutxan eskudirua dago.
- GUIPUZCOANO Bankuari zor dio 12 urterako mailegu batengatik.
- Zorra dute berarekin makineria zaharraren salmentarengatik.
- Ordenagailuak eta laser inprimagailuak.
- Ordenagailuaren bidezko kontabilitate-programak.
- Kontu korronea RONCESVALLES Aurrezki Kutxan.
- Lantegiko eta bulegoetako eraikina.
- Ekitaldi honetako mozkinak.
- 4 hilabeterako mailegua zor dio aurrezki kutxari.
- Mahaiak, aulkiak, lanparak, artxibategiak, etab.
- Gizarte Segurantzarekiko zorra.
- Zorra dute berarekin txosten batzuk egiteagatik.
- Norberaren borondatez banatu ez diren aurreko urteetako mozkinak.
- SHIMANO martxa-aldagailuen patentea.
- Bizikletak prest saltzeko.



Horrez gain, enpresak ondoko informazio hau ematen du:

Aktibo osoa	148.500
Funts berekiak	68.200
Pasibo galdagarria	80.300
Zorraren batez besteko interes-tasa	% 4
Irabaziaren gaineko zerga	% 35
Zerga eta interesen aurretik lorturiko mozkina	14.300
Salmentaren bidezko diru-sarrerak	299.000

HAU ESKATZEN DA:

A) Balantze bat egitea aipaturako ondareko elementu bakoitzaren **izen osoa** adieraziz. Ondare-masak honela ordenatuz: Aktiboa likidezia txikienetik handienara eta pasiboa galdagarritasun txikienetik handienara.

Kalkulatu Mozkin Garbia. Kopuru hau lortzeko egin diren kalkuluak idatz itzazu. **(1,75 puntu)**

B) Kalkulatu errentagarritasun ekonomikoa, finantza errentagarritasuna, aktiboen errotazioa, salmenten gaineko marjina eta esan bi osagaietako zeinetan oinarritzen duen mozkina. **(0,5 puntu)**

C) Hurrengo ekitaldi ekonomikoan, enpresak inbertsio bat egin du aktiboa 55.000 €-tan igoz eta interesen eta zergen aurreko mozkina igo egin da, 32.800 € izanik.

Aipatu inbertsioa finantzatzen badu, soilik kapital-gehikuntza (funts berekiak) erabiliz, Mozkin Garbia 19,232,2 € da. Aldiz, mailegu baten bidez osorik finantzatzen badu, pasibo galdagarria gehituz, Mozkin Garbia 17.802,2 € da.

Komenta ezazu bi egoeretako palanka-efektu finantzarioa **(0,75 puntu) (1)**

(1) Azalpena laguntzeko egin diren kalkuluak idatz itzazu.

OHARRA: Bi hamarrenekin biribildu zifrak.